



5

ikastunitatea

AUKERA SOBERAN!



## Aurkibidea

<b>1. Irakaslearentzako oharrak</b>	<b>2.or</b>
<b>2. Bezeroarekin hizketan</b>	
Aukera zabala	3-4.or
<b>3. Dendetako gauzak</b>	
Nolakoa... halakoa!	5-6.or
<b>4. Finkatuz</b>	
Zera erakutsiko dizut...	7.or
<b>5. Dendariaren txokoa</b>	
Erakusleihoko txartelak	8.or
<b>6. Eranskinak</b>	
6.1. Transkripzioak	9-10.or

## 1. Irakaslearentzako oharrak

Ikastunitate honetan, dendetako produktuen azalpenetan parte hartzen duten elementuak landuko dituzte ikasleek. Oinarrizko deskribapenetara hurbilduko dira, jantzi-dendetako hainbat egoeratik abiatuta. Produktu horien ezaugarriak nola azaldu ikustea izango da ikasleen egiteko nagusia, antzeko egoerak errepikatzeko bidea jorratuz.

- **Bezeroarekin hizketan.** Arropa- eta zapata-dendan gertatzen diren bi elkarrizketa entzun eta aztertuko dituzte ikasleek, dendariak azaldutako produktuen inguruko informazioa jasotzearen eta dendariaren zein bezeroaren partehartzea identifikatzearen. Antzeko egoerak errepikatu behar dira atazaren bukaeran elkarrizketa-gida baten bitartez.
- **Dendetako gauzak.** Produktuak deskribatzerakoan erabili daitezkeen hainbat elementurekin egingo dute lan ikasleek. Eginkizun-katea gelako jendeak jantzita dituen arropak deskribatzera bideratuta dago.
- **Finkatuz.** Produktuen ezaugarriak azaltzeko deskribapenak nola osatzen diren aztertu eta gero, arropen deskribapenak osatu beharko dituzte, ereduetan ikusitakoari jarraituz, eta emandako hainbat osagai erabiliz.
- **Dendariaren txokoa.** Jantzi-dendetako erakusleihoko gauzak azaltzeko erabili ohi diren txartelez jabetuko dira ikasleak: aurrena, arropen izenak eta prezioak soilik erabiliz, eta, ondoren, erakusleiho osoa deskribatuko duen txartela osatuz.

## 2. Bezeroarekin hizketan

### AUKERA ZABALA

85'

#### Helburuak:

- Irudietako ezaugarriak identifikatzea.
- Entzundako elkarrizketen parte-hartzaileek esandakoa aztertzea.
- Produktuen inguruko deskribaketak ezagutzea.
- Gidatutako elkarrizketa osatzea.

#### Zertan den:

- Elkarrizketetako hainbat hitz kontrako esanahia dutenekin lotzen saiatuko dira ikasleak. Ondoren, dendariaren eta bezeroaren arteko bi elkarrizketa entzun, datuak jaso eta antzeko egoerak osatuko dituzte.

### PROZEDURA

#### Atazaurrea

- Elkarrizketa batean entzungo diren hitzetako batzuk dituzte ikasleek liburuan. Kontrako esanahia duten hitzekin bikoteak osatu behar dira.
- Ikasleek egindakoa alderatu egingo dute, binaka jarrita. **(10')**

#### Zuzenketa-orria

BIKOTEAK	
formala	informala
iluna	argia
lisoa	marraduna
beroa	freskoa
larruzkoa	plastikozkoa
erosoa	deserosoa
ona	txarra
moderno	klasikoa
italiarra	frantziarra
arina	astuna

#### Ataza

- (Egoera: Mikel ezkontza batera gonbidatu dutelako dendaz denda ibili da arropa egokia aukeratzen). Bi dendatan izandako elkarrizketak (**CDaren 11. eta 12. pista**) entzungo dituzte ikasleek: jantzi-dendakoa eta zapata-dendakoa. Euren eginkizuna taulako informazioa jasotzea da. **(10')**
- Berrito entzungo dituzte elkarrizketak, gelditu zaizkien hutsuneak bete ditzaten. **(5')**
- Elkarrizketa-zatiak irakurriko dituzte, zehatzago aztertu ahal izateko. Bereiztu beharko dituzte dendariak (D) esandakoak eta Mikelek (M) esandakoak, dagokion zutabearen gurutze bat eginez. **(15')**
- Dendariak esandako esaldiak berrito irakurriko dituzte eta salerosketan duten funtzioaren arabera sailkatuko. Esaldi bakoitzaren zenbakia idatzi behar da hobeto egokitzen zaion funtzioaren ondoan. **(10')**

#### Feedbacka

- Ikasleek berrito entzungo dituzte elkarrizketak, egin dutena egiaztatu dezaten. **(15')**

#### Zuzenketa-orria

MIKEL JANTZI-DENDAN	MIKEL ZAPATA-DENDAN
Mikelek <b>trajea</b> erosi nahi du	Mikelek <b>zapatak</b> erosi nahi ditu

Dendako aukera zabala da... Estiloak: <b>formalak, klasikoak, jantziak, informalak...</b> Koloreak: <b>ilunak, argiak, koadrodunak, marradunak, jaspeatuak...</b> Materialak: <b>lihozkoak, kalitate onekoak</b>	Dendako aukera zabala da... Estiloak: <b>erosoak, italiarrak, arinak, modernoak...</b> Koloreak: <b>ilunak</b> Materialak: <b>larrua</b>
Mikelek <b>44</b> neurrikoa behar du	Mikelek <b>43</b> neurrikoa behar ditu

MIKEL JANTZI-DENDAN		MIKEL ZAPATA-DENDAN	
D	M	D	M
X		X	
	X	X	
X		X	
X		X	
X			X
X		X	
X			X
X		X	
	X	X	
	X	X	
X			X

	ESALDIAK							
Bezeroari harrera egiteko	8	22						
Bezeroaren beharra zein den jakiteko	4	16						
Produktuaren modelo desberdinak azaltzeko	1	3	7	9	13	15	19	21
Bezeroaren neurriak ezagutzeko	6	18						
Bezeroa produktua janztera animatzeko	5	12	14	23				

### Atazaostea

- Binaka jarrita, bi egoerak errepikatuko dituzte. Egoera batean dendaria dena bestean bezeroa izango da. Arestian bete duten taulari jarraituko diote gida bat balitz bezala, eta antzezpena egingo dute, esaldi egokiak aukeratuz. **(20')**

### 3. Dendetako gauzak

NOLAKOA... HALAKOA!

75'

#### Helburuak:

- Koloreen izenak ezagutzea.
- Gauzak deskribatzeko ezaugarriak ezagutzea.
- Jantzien atalak identifikatzea.
- Arropen ezaugarriak ahoz azaltzea.

#### Zertan den:

- Produktuak deskribatzerakoan erabili daitezkeen hainbat elementuz baliatuko dira ikasleak ataza honetan lan egiteko. Hartara, kolore bakoitza bere izenarekin lotu ondoren, produktuen nolakotasunak irudietan identifikatu eta arropari dagozkionak aukeratuko dituzte. Ondoren, ikaslea bakoitza ikaskideen arropak deskribatzen ahaleginduko da, eta gainerako ikaskideek deskribatutakoa zer den asmatu beharko dute.

#### PROZEDURA

1

#### Ataza

- Ikasleek liburuko kolore bakoitza zein den aukeratu beharko dute. Izenen zutabea osatu ondoren, kolore horretako ezagutzen dituzten gauzak zerrendatuko dituzte. **(10')**

#### Feedbacka

- Binaka jarrita, koloreen zerrenda alderatzeaz gain, batek lerro bakoitzeko hitzak irakurriko ditu, ea besteak igartzen duen kolorea. **(5')**

#### Zuzenketa-orria

1	zuria
2	marroia
3	berdea
4	morea
5	horia
6	urdin argia
7	gorria
8	beltza
9	laranja
10	urdin iluna
11	arrosa
12	grisa

2

#### Ataza

- Irudietako gauzei buruz esan daitezkeen hainbat ezaugarri daude, deskribapenak egiterakoan hiztegi moduan erabiltzeko. Ikasleek horietako nolakotasun bakoitzari zein jantzi egokitzen zaion idatzi behar dute taulan. (3. unitateko "Dendetako gauzak" ataleko jantzien izenak kontsultatzea lagungarri izango zaie). **(10')**
- Ikaslearen liburuko irudi bakoitzaren ondoan bere atalak daude idatzita. Ikasleen betebeharra hitz horiek gaztelaniaz nola esaten diren adieraztea da. **(10')**

## Feedbacka

- Berriz ere ipiniko dira bikoteka, egindako lana erkatu ahal izateko. (5')

Zuzenketa-orria			
Txamarra	Galtzak	Zapatak	Berokia
txanoa (gorro)	kremailera (cremallera)	lokarriak (cordones)	lepoa (cuello)
poltsikoak (bolsillos)	hankak (patas)	zola (suela)	botoiak (botones)
mahukak (mangas)	galtza-barrena (bajo, dobladillo)	takoia (tacón)	botoi-zuloak (ojales)

## Atazaostea

- Atal honetan ikusitako hiztegia erabiliz, gelako jendearen jantziak aukeratu eta ozenki deskribatuz joango dira ikasleak, banaka, besteek zein jantzi den asma dezaten. Garrantzikoa da jantzi bakoitzaren ahalik eta ezaugarri gehienak ematea. (15')

## ETXEAN

- Ikasleek koloreen nahasteko taula osatu eta gero, nahasketa gehiago egiteko aukera dute hurrengo taulan. (5')
- Gauzen zatien irudiak ikusita, zer den asmatu behar dute. Ondoren, zati horretan oinarrituta, bakoitzak izan ditzakeen ezaugarriak aipatuko dituzte. (15')

## 4. Finkatuz

Ikasleei ikastunitatean zehar landu diren hainbat egituratan arreta jarraraztea da atal honen helburua. Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek jakitea hemen proposatzen diren jarduerak euren kaxa egiteko modukoak direla eta, era berean, ariketak egiteko erreferentzia ikasgelan egindako lanean bilatu behar dutela. Dena den, irakaslearen laguntza derrigorrezkoa izango da, sortu dakizkiekeen zalantzei erantzun egokia emateko.

### ZERA ERAKUTSIKO DIZUT...

40'

#### Helburuak:

- Gauzen deskribapen laburrak egiteko esaldiak ezagutzea.
- Entzundako arropen deskribapenak eta irudiak lotzea.
- Emandako elementuak konbinatuz, arropak deskribatzea.

#### Zertan den:

- Produktuen ezaugarriak deskribatzeko esaldi laburrak nola osatzen diren aztertuko dute ikasleek liburuko taularen bitartez. Ondoren entzungo dituzten deskribapenak dagozkien irudiekin lotzen saiatuko dira. Eta, bukatzeko, deskribapenak osatu beharko dituzte, taulako osagaiak erabiliz.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Gauzen deskribapenak egiteko erabil daitezkeen esaldi laburrak irakurri egingo dituzte. Esaldi horiek egiteko osagaiak bereizita daude liburuko taulan bertan. **(10')**
- Koadroa aztertu ondoren, dendariak egindako hainbat deskribapen **(CDaren 13. pista)** entzungo dituzte, deskribatutako gauzak eta irudiak lotzearren. **(10')**
- Hainbat gauza deskribatu behar dira esaldi laburren bidez, taulako osagaiak baliatuz. **(20')**

## 5. Dendariaren txokoa

Dendara egokitzeko eredu baliagarriak aurkituko ditu ikasleak atal honetan. Jarduera horiek nork bere kaxa egitekoak badira ere, egokitzapenak egitean topatuko ditu ikasleak eragozpen gehien. Ikasleari eredu egokiak aukeratzen laguntzea izango da irakaslearen lana.

### ERAKUSLEIHOKO TXARTELAK

**20'**

#### Helburuak:

- Irudiko erakusleihoko arropen izenak idaztea.
- Erakusleihoko txartela idaztea.

#### Zertan den:

- Ataza honetan, jantzi-dendetako erakusleihorako txartelak osatze aldera, arropen izenak eta prezioak lotu beharko dituzte. Ondoren, erakusleihoko jantziak egoki kokatuko dituzte, jantzi bakoitzari salneurri egokia ipini.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Ikaslearen liburuko irudia erakusleiho arrunt batena izan liteke. Bertan dauden arropen ondoan salneurri aproposak ipintzea da ikasleen eginkizuna. **(10')**
- Alderantzizko zeregina izango dute oraingoan: alegia, prezioen alboan arropen izenak idaztea. **(10')**

## 6. Eranskinak

### 6.1. Transkripzioak



#### CDaren 11. pista

Iraupena: 00:01:05

##### MIKEL JANTZI-DENDAN

DENDARIA	Kaixo! Zertan lagunduko dizut?
BEZEROA	Ba, begira, larunbatean ezkontza bat daukat eta traje bat erosi nahi dut.
DENDARIA	Eta, ideiarik ba al duzu?
BEZEROA	Egia esan, oso garbi ez daukat zer nahi dudan.
DENDARIA	Lasai, erakutsiko dizut zer daukagun. Pasa hemendik. Hemen dituzu traje formalak. Ia denak kolore ilunekoak dira: grisa, urdina edo beltza. Bestela ere badituzu beste hauek: argiak eta lihozkoak. Informalak dira, baina oso politak. Oso kolore naturalak dituzte eta, gainera, lihoa oso freskoa da, badakizu. Eta hemen daude lisoak ez direnak: koadrodunak, marradunak eta jaspeatuak. Oso kalitate onekoak denak. Zein neurritakoa behar duzu?
BEZEROA	Ez dakit oso ondo, 44a edo...
DENDARIA	Orduan, "L" neurriko batzuk aterako dizkizut modelo eta kolore desberdinetan, eta zuk jantzi ea zein geratzen zaizun hobeto!
DENDARIA	Tori. Hortxe duzu aldagela. Bakoitza jantzi ondoren kanpora atera, nola gelditzen zaizun ikusteko.
BEZEROA	Primeran! Mila esker.



#### CDaren 12. pista

Iraupena: 00:00:54

##### MIKEL ZAPATA-DENDAN

DENDARIA	Kaixo! Zer nahi duzu?
BEZEROA	Larunbatean ezkontza bat daukat eta zapatak behar ditut.
DENDARIA	Zerbait pentsatuta duzu?
BEZEROA	Bueno, zerbait bai. Zera nahi dut... arinak, erosoak eta ilunak izatea.
DENDARIA	Oso ondo. Segituan aterako dizkizut batzuk.
DENDARIA	Hauk oso erosoak dira, italiarrak, larru onekoak eta oso onak. Garestiak ere badira. Beste hauek ere ondo daude. Onak dira, erosoak, arinak eta prezio ona dute. Eta, gero, hauek dituzu: oso bereziak dira, diseinu modernoak dute eta larrua ere oso ona da. Hori bai, ez dira egunero janzteko. Badakizu... egun berezietan eramateko dira.
DENDARIA	Zenbakia?
BEZEROA	43a, normalean.
DENDARIA	Ondo ikusteko, jantzi egin beharko dituzu. Eseri aulki horretan.
BEZEROA	Ea nola gelditzen zaizkidan!



### CDaren 13. pista

Iraupena: 00:00:54

1. DENDARIA	Eta hauek? Ez dira bakeroak, baina oso informalak dira, urdinak eta zabalak. Poltsiko politak dituzte, baietz?
2. DENDARIA	Oso egokia da zuretzat. Beso motzak ditu, baina oso beroa da. Ez da oso luzea, baina gona horrekin oso ondo gelditzen da.
3. DENDARIA	Hauek oso erosoak dira. Larruzkoak dira, arinak eta ez dute lokarririk. Udarako egokienak.
4. DENDARIA	Oso-oso beroa da, lumazkoa da eta oso arina. Kolorea bizi-bizia da, ezta?